



FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Argi dago beste bazkide- edo hornitzaile-sareekin elkartzea oso lagungarria eta beharrezkoa izan daitekeela gure proiektua aurrera eramateko. Hainbat elkarterekin harremantzea ezinbestekoa izango da, gure bezeroei ahalik eta arreta hoberena eskaintzeko. Hauen artean, ingenieritzan trebeak diren enpresak, diseinu grafikoan jakintsuak direnak... Horretarako, eta gure enpresa aurrera eramateko, Anima Design-ekin, Laboratorios Perez Gimenez sa-rekin eta Bayer-ekin kontaktatuko dugu.

Batetik, diseinua lortzeko eta gure pilulak apurtuko lituzkeen aparatua ahalik eta praktikoa izateko, Anima Design-rekin aliatzea aukera paregabea dela deritzogu. Alde batetik, uste dugu garrantzia handikoa dela diseinua ahalik eta egokiena izatea, izan ere, "multiusos" bat eraiki nahi dugu eta horrek gure objektua praktikoa izatea dakar. Gainera, produktua ahalik eta erakargarriena izatea nahi dugu eta enpresa horrek eskaintzen dituen produktuak ikusita, estekikoki oso lagungarria izango litzakeela uste dugu.

Bestetik, produktu kimikoekin zerikusia duen gailua salduko dugunez, oso garrantzitsua iruditzen zaigu pilulak zatitzea segurua izatea eta jendearen osasuna ez kaltetzea. Horretarako, Laboratorios Pérez Giménezekin afiliatzea erabaki dugu. Enpresa hori Espainiako kapital osoko familia enpresa bat da, kalitate, segurtasun eta eraginkortasun goreneko sendagaiak eta osasun-produktuak fabrikatzen eta merkaturatzen ditu. Erabat segurua den zerbitzua eskaini ahal izateko eta gure bezeroen ongizatea bermatzen duten produktuak erosten eta aplikatzen ari direla ziurtatzeko egin gara horiekin kide.

Azkenik, Bayer enpresarekin bat egingo dugu haien ospea kontuan izanik, gure enpreseak arrakasta gehiago izan dezan. Haien produktu batzuk gurearekin batuta gure salmentek gora egingo lukete.



Laburtuz, Anima Design, Laboratorios Perez Gimenez eta Bayer enpresen laguntzarekin pilula zatitzaile egokia sortuko dugulakoan gaude. Gure bezeroen beharrak asetuko dituen objektua segurua izango da eta diseinu paregabea edukiko du.